

Aparkalekuak eta trafikoa Besabi inguruan

Urtearen amaieran Ertzaintzak isunak ezarri zizkien bide bazterrean utzitako autoen gidariei. Bide segurtasuna bermatzeko neurriak hartu beharko dira etorkizunean / 12



Goizeko ordu txikietan hasita, ekoizleei arraina saltzen die Rafi Florido urnietarrak / 4-5



Lasterka eginez, umore onez eman zioten amaiera Andoainen eta Urnietan / 7-11



AITOR MERINORI ELKARRIZKETA

Andoaingo Bake eta bizikidetza jardunaldien baitan, urtarrilaren 14an "Asier ETA biok" dokumentala eskainiko dute Basteron. / 3

Datorren Aiurrin, Oscar Villafañe Merino andoaindarrari elkarrizketa



ETAk bi aldiz kolpatu zuen bere bizitza, lehenengo aita eta geroago aitona erail zituenean



Maider Lainez eta Marijose Izagirre aritu ziren akordio proposamenaren bozeramaile lanetan. AIURRI

Akordioa aurkeztu dute

Urtearen hasierarekin batera, Andoaingo Udalak 23,5 milioi euroko Udal aurrekontu proposamena onartuko du. Era berean, Legegintzaldi plana jendaurrean aurkeztzen hasiko dira. "Andoain elkarlanean" izango da erabiliko duten goiburu nagusia

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Erraminta eta diru partidak zehaztuta ekingo dio Udal gobernu taldeak 2020. urteari. Eta dagoeneko PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien arteko aliantza egitasmo zehatzetan zehazten hasi dela esan daiteke. Udazkenean lanketan aritu eta gero, pasa den abenduaren 20an jendaurrean aurkeztu zuten "Andoain elkarlanean" izenburupean laburbiltzen den egitasmoa. Goiburu horren baitan garatuko dira Andoaingo Legegintza plana eta Udal aurrekontu proposamena.

Udal gobernu taldearen ideia eta balore nagusiak zortzi ildo estrategikoetan antolatuta dituzte, eta horietatik 65 neurri zehatz bideratu. Neurri zehatz horiek ez zituzten agerraldian aipatu, urtearen hasieran auzoz auzo egingo dituzten aurkezpenetan egingo dutela iragarri baitzuten.

Udala eta herritargoa elkar uztartzeko asmoa dute, akordioaren bi sinatzaileek. Horrela definitu dute "Andoain elkarlanean" egitasmoa: "Herritarren partaidetzarako, gobernu onerako eta gardentasunerako dinamika berria da, herritarreko elkarrekintza hobetzeko. Helburua andoaindarrekin norabide biko komunikaziorako mekanismoak ezartzea, ekintzen edo konpromisoen jarraipena egitea, eta horien betetze mailari buruzko kontuak aurkeztea da. 2020ko lehen hiruhilekoan 2019-2023 agintaldirako dinamika berria eta epealdi horretarako definituriko 65 neurri zehatzak aurkeztuko dira auzoetan".

Ildo estrategikoak

Hedabideen aurrean zabaldua, oharren arabera, Andoain herri bizi baten aldeko apustua

egin nahi dute. Gazteria Plana aurrera eraman nahi dute, "eta udalerriko bizitza eta kaleak biziberritzeko kultura, kirol eta aisialdiko agendan hobekuntzak bultzatu". Gizarte mailako alorra lehenetsunaren artean zehaztu dute, "kalitatezko arreta-zerbitzuak bermatuz, behar espezifiko erantzuteko". Hazkundera eta lehiakortasunari dagokionez, auzo guztietan zerbitzu berberak eskaintzeaz gain, "Udalerrian negozio-aukera berriak sortzea, jarduera ekonomikoak erakartzea eta berriak eratzea erraztu" nahi dituztela iragarri zuten. Jasangarritasuna, berdintasuna, euskara eta elkarbizitza dira gainerako ildo estrategikoak.

Lortutako akordioari garrantzia emateko, bi alderdietako ordezkariak zabala elkarrekin agertu zen hedabideen aurrean.



Rikardo Arregi kalean biribilgune berria eraiki nahi dute. AIURRI

Aurrekontuko partida nagusiak

Atal nagusiak

- Langilegoa 9.000.000 euro.
- Zerbitzuak 5.200.000 euro.
- Gizarte Zerbitzuak 2.100.000 euro.
- Enplegua 1.900.000 euro.
- Kultura 1.500.000 euro.
- Kirola 1.400.000 euro.
- Ogasuna 980.000 euro.
- Hirigintza 550.000 euro.
- Euskara 513.000 euro.
- Berdintasuna 240.000 euro.

- Udal instalazioetan kirol zerbitzuak emateko lehiaketa berria lizitatzeko eta Allurralde handitzeko azterlanak lizitatzeko (769.500 euro).
- Andoaingo Udal liburutegi berriaren kokapena finkatzeko azterketa (20.000 euro).
- Berdintasuna sustatzeko prebentzio programak (58.000 euro).

Partida nagusiak

- Eguneko Arretarako Zentroa sortzea (30.000 euro).
- Hirigintzako Azterlan eta Proiektuen partida indartzea (340.000 euro).
- Klimaren aldaketara egokitzeko plana (25.000 euro).
- Parke eta lorategien mantentze-lanetarako kontratu berria (480.000 euro).
- Kontagailuak eguneratzeko lehen partida (160.000 euro).
- Haur-parke estalia eta skatepark-eko argiteria hobetzea (35.000 euro).

Inbertsio zerrenda

- Alokairu sozialera bideratutako udal etxebizitzetan eta lokaletan eraberritze lanak (170.000 euro).
- Rikardo Arregiko biribilgune berria (120.000 euro).
- Mimendiko arrapala (145.000 euro).
- Hobekuntzak ur-sarean (340.000 euro).
- Plazaola drainatzea (230.000 euro).
- Autokarabanentzako aparkalekua (175.000 euro).



andoaINDARRA
euskaraz

Xabier Lasa ANDOAIN

'Asier ETA biok' izenburuko ordu eta erdiko filmean zehar Aitor Merino aktore eta zinegile iruñearrak ETako kide ohi batekin (Asier Aranguren) txikitatik mantetzen duen adiskidetasuna azaltzen du. Komunikazio estilo arina eta hurbila erabiliz, batzuen eta besteen arrazoi politikoak eta emozionalak transmititzen ditu, eta halaber, euskal auziaren eta borroka armatuaren inguruan gogoeta etikoak plazaratzen ditu. **Filma 2014an estreinatu zen, eta dezenteko zabalpena izan zuen...**

Espainiako estatuko areto ofizialei dagokionez, behintzat, 30.000 ikusle erakarri zituen estreinaldiak. Ez da txantxetako kopurua, dokumentala izateko. Pozik egon gaitzke geroztik egin duen ibilbidearekin. Sarean, gaur egun, Filmin plataforma digitalean eskura dago, eta youtuben baimenik gabe ikus daiteke. Bestalde, ETBn jarri duten bakoitzean audientzia onak lortu ditu. Gainera, leku askotatik hots egin digute, solasaldietan parte hartzeko; dexente dira programatu duten erakunde eta elkarteak. Filmak jendearengan eztabaida politak eragitea lortu du, eta ez da gutxi! Horixe baitzen Amaia arreba eta biok nahi izan genuena, filma diseinatu genuen une beretik.

Ika-mika ugari sortu zuen orduan. Boikota kanpaina ere antolatu zen...

Traba ugari jasan genituen, baina ez nuke esango boikota izan zenik. Gaur egun beste zentsura moduek funtzionatzen baitute, eta omisioa da horietako bat: zu isiltzeko, ez ikusiarena egitea, alegia. Gogoko ez diren iritziak bazterrean uzteko modua da. Banaketa asko zaildu zitzaigun eta Madrilén, Valentzian edo Zaragozan ezin izan genuen modu egokian estreinatu. Filmin plataformak bai, baina Movistar edo Netflixek ez zuten ezer jakin nahi izan...

Duela hiru urte jakin genuen Espainiako gobernuaren AEBeko enbaxadak ahalegina egin zuela, Smithsonian instituzioak Washingongo Folklife Festivalean programatu ez zezan. Antolatzaileek ez zuten amore eman, zorionez. Eta ez pentsa, traba horiek indarrean dira oraindik. Esate batera, makina bat saiakera egin dugu Espainiako telebista kateek emititu dezaten, baina keba! Ateak itxita dauzkagu, baita Espainian

"Herritarrak saiatu behar gara besteen azalean jartzen"

AITOR MERINO AKTOREA ETA ZINEGILEA

"Asier eta biok" dokumental ezaguna eskainiko dute Andoainen, bake eta bizikidetzaren mahaia antolatutako ekitaldian. Egilea bertan izango da, solasaldian parte hartzeko



Aitor Merino zuzendaria eta aktorea. AITORMERINO

egiten den zinema bultzatzen duela dioen RTVE kate publikoan ere.

Madrilgo aktore lagunentzat eta Euskal Herriatik kanpoko jendearentzat eta, bestetik, zu ETako kide ohi baten adiskidea izatearen zergatia azaltzeko egin zela zenion. Desinformazio eta esterotipoen kontrako ahalegina izan zen, zure ustetan. Zerbaitetan lagundu al du?

Madrilgo aktoreen zirkuluko adiskideen gaia, aitzakia argumentala izan zen nolabait esateko, haiek edozein pertsona sinboliza baitezaketen. Noski axola zaidala adiskideek zer pentsatzen duten nitaz edo euskal auziaz, baina batik bat ikuslearen arreta neregianatu nahi nuen. Madrilgo adiskide horiek aitortzen didate nire bizipen pertsonala ezagutzeak zerbaitetan lagundu izan diela, hots, euskal auzian ikuspegi eta arrazoi desberdinak ulertzen. Esan dudana bezala, estatuko ikusle normal baten arretan eragitea izan zen gure helburu nagusia. Nire kasu pertsonala azalduz ohartarazi nahi genuen komunikabideetan mezu ideologiko zehatz batzuk agertzen direla

ASIER ETA BOK DOKUMENTALA URTARRILAREN 14AN ESKAINIKO DUTE BASTERON, 18:30EAN

eta ez beste batzuk; errealitatearen zati bakar eta interesatu bat transmititzen dela, eta horiek edonoren iritzia erabat baldintza dezaketela. Ikusleek euren baitan galderak egitea zen filmaren asmoa. Ez zalantzei erantzunak eskaintzea, baizik eta galdera berriak sortzea.

Solasaldietan eta ikusleek edo eta kritikek adierazitakoen arabera, lortu genuela iruditzen zait. Noski, beti izan gara konstziente gure ahalegina hondar ale bat baizik ez zela izango komunikabideen basamortuan.

Gorka Otxoa aktoreak Euskadi Irratian berriki aitortu du jada Euskal Herriari buruzko iritzirik ez duela ematen, beldurragatik eta bere ibilbide profesionalean etorkizunean eduki dezakeen eraginagatik...

Ulertzen diot Gorkari, eta partekatzen dut beldur hori. Nik ez dut halako erabakirik hartu oraingo; twitterren ez naiz oso maiztasun handikoa baina jarraitzen dut iritzia ematen. "Asier ETA biok" filma egiteagatik ez nuke esango lanik galdu dudunik, baina hala izan bada, ez dut jakin.

Andoingo Udaren Bizikidetzaren mahaia antolatu du dokumentalaren ekitaldia. Bizikidetzan zertan lagun dezakeela uste duzu?

Beti da aberasgarria bizipen pertsonalak zintzotasunez partekatu nahi izatea. Sendagai izan daiteke, zenbait une eta egoeratan. Arreba eta biok harrituta geratu ginen Euskal Herrian bertan izan zuen harrera beroagatik eta jende askok erakutsi zuen erantzun emozionalagatik.

Euskal herritarrok egin dezakegun gauzarik onena geure iraganeko bizipenak transmititzea da, eta batik bat, besteen bizipe nei arreta jartzea. Saiatu behar dugu besteen azaletan jartzen. Alde horretatik, Basterora hurbiltzen diren pertsonen gonbitea luzatzen diet filman agertzen diren ideiei buruzko iritziak eman ditzaten, edo eta beren bizipen pertsonalak konta ditzaten.

Zertan zabilta une honetan?

Lanean, han eta hemen! Berriki, zinean, Galparsorok zuzendutako serie batean paper txikia egiten aritu naiz, eta antzerkian "Efimeras" antzezlanean parte hartu dut. Une honetan, nire ahalegin guztia "Fantasia" filmara bideratuta daukat; gurasoei buruzko dokumentala da. Ziur, goiz ala berandu, euskal gaiari helduko diodala berriz ere.



Telefona, kalkulagailua eta urte luzez metatutako esperientzia ezinbesteko erramintak dira Florido urnietarrentzat. AIURRI

Salmentaren artista

Rafi Florido urnietarrak 26 urte daramatza Merka Oiartzunen eta Pasaiaiko lonjan arraina saltzen; arrandegietako langileek konfiantza handia dute berarekin. Eguberrietan lanez lepo ibili da, ehun mila kilo saldutako egunak bizi izan ditu

Andoni Urbistondo URNIETA

Rafi Florido Urnietako familia ezagun bateko kidea da. 44 urte ditu, eta azken 26 urteetan arrain saltzaile aritu da. Bereciartua arrain salmenta enpresarentzat egiten du lana, eta Merka Oiartzunen eta Pasaiaiko kaiko lonjan aritzen da salmentan. Gaueko ordu txikitik, normalean goizaldeko hiruretako laneko aldagelan egoten baita, jantzi, prestatu, eta lanean hasteko. Bi hamarkada eta erdi daramatza jardun berean, eta eskarmentu horrek lan zaila dirudiena erraz bilakatzen laguntzen dio.

Rafik arraina erosten du, hainbat merkatutan. Horrek arrain ezberdinen ezagupen handia eskatzen du (izen zientifiko guztiak eta arrain bakoitzaren ezaugarrien aditua da), bere bezeroen elikadura ohiturak jakitea, noiz egongo den arrain jakin bat,

zein preziotan, eta jakina, komertzial on gisa, salmentaren unean nor bai eta nor ez estutu dezakeen eta zenbat. Garbi dio bere egunerokoan konfiantza dela garrantzitsuena: “Bihar, hurrengo astean, hilabetea, hemen egongo naiz arraina saltzen. Euro batzuk gora edo behe- ra, nire armarik eraginkorra konfiantza da. Nik ezin dut bezeroa engainatu. Esango diot egunen batean, akaso ezin doidala salneurria gehiago jaitsi, eta hurrengo egunean salmenta hobia eskainiko diodala, baina inoiz ez engainatu. Engainatuko

"NIRE ARMARIK ERAGINKORRENA KONFIANTZA DA. NIK EZIN DUT BEZEROA ENGAINATU"

banu, zerbait hautsiko litzateke, saltzaile-erosle harremanean, eta hori kaltegarria litzateke niretzat ziur. Engainatuko banu ez litzateke niregana etorriko berriro, arraina erostera”.

Goizeko 03:00ak aldera hasten da lanean Rafi. Autoa hartzen du Urnietan, eta Goi Mendi tabernako semaforoan geratu gabe, egurra Oiartzunera iritsi arte. Bertan dauden langileekin azken kontuak lotu, bezperan arraina erosi duen merkatuko kamioia iritsi dela konprobatu, jantzi aldatu eta Pasaiaiko lonjara joaten da. Lonjako salmentak bere lanaren zati txiki bat baino ez dira. Egun, salmenta handiena bulegotik egiten du, eta bezeroaren nahierara. Alegia, bezeroari biharamunean zer egon daitekeen jakinarazten die Floridok. Ehunka wattshapp mezu bidaltzen ditu. Horiek eskatzen

dutenaren baitan kilo, espezie gehiago edo gutxiago erosten ditu, eta gero bezeroari saldu. “Erraza dirudi, ezta?”, dio Rafik. Urteek ematen dioten eskarmentua baliatuz, saltzaile aparta bilakatu da. Uneoro irabazien mugan jokatu behar horrek beti adi egotera behartzen du Rafi.

Nagusiak nahi beste arrain erosteko aukera ematen dio, egoki ikusten duen salneurrian. Horrek erakusten du erabateko konfiantza duela Rafi Florido- rekin: “Bolumen handia denean, milaka euro asko, kontsultatzen diot, baina normalean konfiantza izaten du nigan”. Abenduaren 23a da. Goizaldeko 04:00rak Pasaiaiko lonjan: “Gaur egun flojo xamarra izango da”, esaten dio kazetariari. “Atzokoa bai, hori ikaragarria izan zen”. Gabonak urtean arrain gehien kontsumitzen den egunak dira, eta arrandegiek prezio hobia lortzen dute Gabon gaueko bezpera aurreko egunean, bezperan baino gehiago. Baina ehunka kilo batzuk badaramatza, furgonetan, badaezpada, Rafik: “Itsas sapo batzuk ditut, mero zuria, erreboiloa, marisko pixka bat... Datil batzuk ere bai, 20 bat kilo. Atzo salduta neuzkan, baina saltzailea Aragoikoa zen, ezin izan ditu jaso, eta gaur saltzen ez baditut, nik onartu beharko dut diru galera. Horrelakoak ere pasatzen dira”. Ez du konfiantza handiegirik datilekin: “Gaur kilo batzuk oparitu beharko ditudalakoan nago...”, bota du lonjako zaindariaren parera iritsita.

100.000 kiloko egunak

Zerga apala dirudi, baina lonjan salgai jartzen duten kilo bakoitzeko 0,1 euro ordaintzen ditu saltzaile bakoitzak. “Badakizu, legea egin zuenak tranpa ere egin zuen, eta ziur nago saltzaile gutxi esaten duela furgonetan zenbat kilo daramatzen...”, dio barrez. Mauritania, Senegal... toki askoko arrainak erosten ditu Bereciartua enpresak, “Euskal Herrian ezagutzen ez diren arrainak: panpanoak, cherneak... Egun, dagoeneko, watsapez sal-

MAURITANIA, SENEGAL... TOKI ASKOTAKO ARRAINAK IRISTEN DIRA

tzen dut arrain gehien. Salneurriak jasotzen ditut bezperan, hornitzaileei bidali, eta erosleak kopurua eskatzen du. Gure politika materia ona eskaintzea da, eta bezeroari tratua ona ematea, konfiantzazkoa. Gu zintzoak gara, ezinbestean. Tratua komertzialaz aparte, laguntasuna ere badago. Ondo zaintzen ditut bezeroak, eta konfiantza ematen diet. Irabazi gehiago edo gutxiago egingo dugu, baina ezin dut bezero ona engainatu. Agian prezio okerxeagoa edo hobexegoa egingo diot, baina ezin diot engainatu”. Lonjan, hainbat erosle elikagaiak oparitzen dizkiote Rafi-ri, saldu dien produktu onagatik eskerrak emateko.

Horregatik, konfiantza ematen duelako lortzen ditu salmenta handiak. Ez sinesteko modukoak, batzuk. “Zehatz-mehatz ez dakit, baina esango nuke egun on-on batean 20.000 kilo arrain saldu, mugitu izan ditudala”. Bost trailer dira! Gehienak, noski, telefonoz saldu eta lotutakoak. Baina lonjan, egun on batean, salmenta agiriak egiten hasi eta ehunka eurotakoak egin ditzake arrandegi askorekin. 10, 15, 30 euroko piezak saltzen ditu Rafik, eta bezero askok dozenaka ale erosten dizkiote. “Bisigu salmentak badira, milaka eurokoak”, dio barrez, “arrain garestiena da”, zehazteko. 65 eurotan saldu izan du negu honetan, “baina apenas iritsi da alerik negu honetan. Itsaso zarrak izan genituen azaroan, eta horrek bisigu gutxi egotea ekarri du. Eta gutxi dagoenean, badakizu, prezioak gora”.

Rafi hara eta hona ibiltzen da lonjan. Arrain kaxak kamioitik atera, bere produktukak ikusteko moduan kokatu, aurretik pasatzen den oro agurtu eta zertan den, edo nahi duen galdetu... Negozio gizon petoa da. Izen ona du eta arrain saltzaile asko hurbiltzen zaizkio: “Zer daukazu, zenbatean?” Hau lortuko al didazu biharko?” Rafik ez du inoiz ezezko biribilik ematen. Ezezko erdia emango du, edo bezeroari ulertarazten saiatu ezin duela bere eskaera bete. Beti dago negoziatzeko prest, bere mugen barruan. Ahalik eta gehien saltzea du helburu, “eta arrain jakin batekin nahi baino prezio txikiagoan saldu badut, beste produkturen bat saltzen saiatzen naiz tratua berean, agian hain



Egun on batean ehun mila kilo arrain saltzera iritsi da. AIURRI

salmenta erraza ez duen produkturen bat". Rafi enkargu bat egitera joan denean hurbildu da Conchi, Astigarragako Simon arrandegiko langilea: "Non demontre ote dago mutil hau? Joan beharra daukat!", oihukatu du, haserre antzean. Kazetariak esan dio, ea ez zer nolako mutila den Rafi. Zirkinik egin gabe esan du: "Hemen dagoen onena! Tranpatxoak egiteko joera handia dute batzuk hemen. Rafik ez. Esango dizu zer eman diezazukeen, zer ez, zein prezioan, baina inoiz ez zaitu engainatuko, eta hori, lonjan, funtsezkoa da".

Soldata ona, ordutegi kaskarra

Rafi Florido konforme da jasotzen duen soldatarekin. Kopuru finkorik ez du, salmenta kopuruaren arabera delako, baina agerikoa da bere enpresan status bat daukala, eta nagusiak ondo zaintzen duela. Goizeko 07:00ak pasa bueltatzen da Oiaztunen duen bulegora, eta han ematen dio nagusiari gaueko partea. Ez da nagusi-langile ohiko harremana. Rafik hitz egiten du, prezioak eta beste aztertu, eta nagusiak baiezkotzea eman. Aldagelara bidean aitortu dio kazetariari, "nagusiak eskaini dit lonjako subastak utzi, eta bulegoan lan egiten hasteko". Eskaintza aztertzen ari da Rafi, "gauari ordu batzuk irabaziko bainizkioke. Eskaintza tentagarria da". Gaur-gaurkoz, Rafi igande gauetik ostegun gauera aritzen da lanean, goizeko ordu bietan edo hiruretan hasi, eta 08:00ak edo 09:00ak arte, "sal-

menten arabera. Gero eta nekezagoa egiten zait gau betean jaikitzea. Bi haur ditut, 5 eta urte batekoak, Jare eta Hodei, eta haiekin gutxi egoten naiz astean zehar. Oso goiz oheratu behar naiz, goizaldeko 02.00an jaikitzeke, eta 16:00ak arte ez ditut ikusten. Gogorra da". Bulegoko lanean hasteak lan eguna goizeko 07:00ak aldera hastea ekarriko lioke. Beranduago bukatu ere bai, noski, "baina haurren ordutegira ere hobeto moldatuko nintzateke, deskantsatuago egon".

Ordutegi aproposagoa lortu bitartean, Rafi Floridok harro kontatzen du bere lanbidearen bitartez belarriprest bilakatu dela. "Eskola publikoetan ikasi nuen, Urnietan, badakizu, euskara asinatura moduan. Etxean ere gaztetan aukera handirik ez nuen izan euskaraz hitz egiteko, gurasoak etorkinak direlako, eta lonjan euskara ikasi dut pixkanaka. Zenbakiekin eta esaldi motzekin ondo moldatzen naiz, eta ulertu, ia dena ulertzen dut. Pentsa, Bera, Lesaka eta Gipuzkoa barnealdeko arrandegi askotako langileak etortzen dira, haiekin euskaraz moldatzen naiz, eta oso gustura". Haiekin, eta Jare eta Hodei haurrekin, etxean, noski.

HARRO KONTATZEN DU BERE LANBIDEAREN BITARTEZ BELARRIPREST BILAKATU DELA

Elizako ordularia konpontzeko akordioa

Urnietako Udalak eta elizak hitzarmena sinatuko dutela iragarri zuen Mikel Pagola alkateak, aurrekontua onartzeko deitu zuten ez ohiko plenoan. Elizako ordularia eta elizakoak diren espazioen erabilera kontutan hartuko dituzte, hitzarmen horretan

Jon Ander Ubeda URNIETA

Hamar milioi euroko langa gainditu du Urnietak. Eguberrien atariko ez ohiko plenoan izan zen, eta bertan Gobernu ardurak dituen EAJ-PNV alderdiak EH Bilduren baiezkotzea jaso zuen. PSE-EE aurka agertu zen.

Inbertsioen atalean, iragarpen sorta egin zuten. Denda Berri Jubilatuen etxearren eraberritze lanak, Plazido Muxika plazan irisgarritasuna bermatzeko San Juan kaletik ibilgailuentzako sarbide bat egitea, Egape ikastolako haur parkea eraberritzea, eta tarimaren aldaketa Sarobe arte eszenikoen gunean, herri bideak berritzea, LED sistema-dun argiteria Txoritagain auzora hedatzea.

Berdintasun teknikaria

Alderdi abertzaleen arteko negoziazioen ondorioz, berdintasun-teknikari bat lanaldi erdiz kontratatzeke deialdia egingo da.



San Miguel elizako kanpadorrean dagoen ordularia, Urnietako San Juan plazan. AIURRI

Igeriketa

Ikasturtean zehar Andoaingo edo Hernaniko igerilekuetan igeriketa ikastaroetan parte hartzen ari diren herritarrek dirulaguntza eskatzeko aukera izango dute. Erabaki hori ere alderdi abertzaleen arteko akordioaren ondoren iritsi da.

Pleno berean, gerakinetatik beharrezko izan daitezkeen beste gastu batzuei aurre egiteko borondatea agertu zuten. Zehazki, Zaldundegiko irisgarritasuna hobetzeko eta tren-geltokiaren irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko. Gerakinetatik ordainduko lirateke.

Udal aurrekontua eztabaidagai

Herme Gonzalez, PSE-EE

"Gure desadostasuna agertu nahi dugu. Ez dugu partida berririk ikusten, beraz, anbiziorik gabekoa dela deritzogu. Jarraikotasuna eman nahi zaiola dirudi. Agintaldi planarekin bat etor daitezkeen aurrekontu proposamena da, eta geu plan horrekin ados ez gaudenez, aurrekontuaren aurka agertzea koherentea dela deritzogu. Bost emendakin aurkeztu genituen: Igerileku itxia eraikitzea, Errekaldeko etxabeen izaera sozialeko etxebizitzak eraikitzea, arrapala mekanikoak Arantzubi kalean ezartzea, Zaldundegiko behin behinekotasunarekin amaitzeko neurriak hartzea eta lurramendiko haur parkea estaltzea".

Ainara de Miguel, EH Bildu

"EH Bildu taldeak aurrekontuen inguruko lanketa sakona egin du. Lehen plenotik adierazi genuen gehitzeko egongo ginela. Negoziazio mahaia ireki zen eta guretzat positiboa izan da. Faltan bota eta premiazkoak ikusten genituen gaiak atera ziren negoziatio mahai horretan. Hartu-eman izan dugu gobernuarekin eta gure proposamenetan berdintasun teknikaria beharrezkoa ikusten genuen. Pozik gaude lortutako akordioarekin. Igerileku itxia iritsi bitarte, beste herrietara doazen familiei laguntzeko proposamena aurrekontuan sartu da. Bestalde, DBHko eraikinarekin oso kezkatuta gaude".

Mikel Pagola, EAJ-PNV

"Lankidetzarako jarrera eskertu nahi diogu EH Bilduri. PSE-EEK bost emendakin erregistratu zituen udaletxean. Azken bi emendakinekin ados gaude. Zaldundegikoa, ordea, gerakinetatik bideratzeko asmoa dugu. Parke estaliekin ados gaude, baina xehetasun batekin. Ez dugu guk aukeratuko, herritarrek parte hartze prozesu baten bidez aukeratuko dute. Lehen hiru emendakinetan PSE-EEK planteatzen duenarekin ikuspegi ezberdinak ditugu. Negoziazio batean lotzen gaituenaz hitz egin genezake. Hori da EH Bilduk egin duena. Sozialistek, aldiz, aspalditik urruntzen gaituen hiru aztergai txertatu dituzte. Adostasunera iristea oso zaila da horrela".

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

Urtebete edukiontzi gris txipadunarekin

2019ko urtarrilaren 21ean hasi ziren ezartzen edukiontzi grisa Andoaingo herriguneko edukiontzi guneeetan, ordura arteko edukiontzi berdeak kenduz. Hala ere, otsailaren 11ra arte errefusaren edukiontzi berriak zabaltzeko ez zen txartelik behar izan.

Edukiontzi aldaketa horrek, urtarrelean bertan, errefusaren jaitsiera eta gaikako bilketaren igoera ekarri zuen. Lehen aldiz, gaikako bilketa Andoainen %50a gainditu zelarik (Europak 2020rako eskatzen duen portzentaia).

Otsaileko datuetan are nabarmenagoa izan zen hobekuntza: %63a gainditu zuen bilketak (Europak 2025 eta 2030erako eskatzen dituen portzentaia gaindituz). Hurrengo hilabeteetan, oro har, %65aren gainetik (Europak 2035erako eskatzen duena) ibili da gaikako bilketa, irailean %67ra ailegatuz.

2019ko urtariletik urrirako datuak 2018ko epe berdinekoekin alderatzen baditugu, ikusi dezakegu sortzaile berezietatik biltzen den materia organikoa 52.150 Kg-tan gehitu dela, errefusak jaitsiera handia izan duela (831.130 Kg gutxiago), organikoaren kaleko edukiontzi marroietan 324.470 Kg gehiago bildu dela,

edukiontzi horietan 118.111 Kg gehiago, urdinetan 42.396 Kg gehiago eta arroparen edukiontzi zurietan 19.088 Kg batu direla.

Beste frakzioetan jaitsiera txikiak eman dira, baina kontuan hartu behar da 291.432 kg gutxiago sortu dela.

Gaikako bilketa %44,58tik %63,56ra igaro da, hots; ia 20 puntu (zehazki 18,98 puntu) igo da gaikako bilketa.

Eta oraindik hobetu dezakegu, eskura baitugu %70a gainditzea, zenbait neurri hartu eta zenbait jokabide aldatu ezker. Ez genuke aipatu gabe utzi nahi 143.876,91 euro aurreztu ditugula (errefusa tona bakoitzak 173,11 euroko kostua du) andoaindar guztiok errefusaren kantzitatea jaisteagatik.

Horregatik guztiagatik, andoaindarrak zoriondu eta hobekuntzan sakontzera gonbidatzen ditugu.

Ez ditugu ahaztu nahi edukiontzi grisaren alde agertu ziren EHBildu, EAJ-PNV, Ganemos nahiz Irabazi alderdiak, gurekin batera hobekuntza nabarmen bat emango zela sinistu zutelako, datuek berretsi dutena.

Beraz, animo Andoain eta %70a gainditzera!

Guztion artean lortuko dugu!



POSTONTZIA

EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA ESKUALDEA

Lan, pentsio, bizitza duina

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzen duten eragileek Barakaldoko BECen bildu gara datozen urteetako erronka berriak finkatzeko eta urtarrilaren 30ean egingen den greba orokorrari bultzada bat emateko.

Lan munduaren egiturazko prekarietatearen aurrean, pentsioen murrizketaren aurrean eta bizitzaren sostengagarritasuna arriskuan jartzen duten neurrien aurrean, mezu argi bat daukagu: Lan, pentsio eta bizi duinak! Pentsiodunen mugimenduaren deia erantzunez deitu dugu Greba Orokorra. Bi urtez kalean egon eta gero, jauzi kualitatibo bat emateko beharra planteatu du mugimenduak, borroka horren alde beste kolektibo batzuk batzera deituz.

Borroka eta aldarrikapen horiek gure egiten ditugu, eta,

gainera, Greba Orokorraren bidez bestelako aldarrikapenak ere ekarri nahi ditugu mahai gainera. Lan baldintzak duintzeko neurriak eskatzen ditugu: lanaldia 35 ordura jaitea, 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzea, soldata-arrakala amaitzea nahiz azpikontratazioetan enplegua eta lan baldintzak bermatzea. Egun ukatuak zaizkigun eskubide sozialak aitortzea eskatzen dugu: etxebizitza eskubide bat izateko neurri eraginkorrak hartzea, menpekotasun egoera guztiei erantzun egokia ematea zerbitzu sozialen sistema publiko, unibertsal eta doakoaren bidez... bizitza erdigunean jartzeko zaintza lanak ikusarazi, aitortu, bermatu eta duintzea eskatzen dugu.

Garaia da azken urteetan murrizketekin kendu diguten

guztia berreskuratzeko eta aldaketa sozialaren norabidean aurrera urratsak emateko. Pentsio, lan-baldintza eta bizitza duinak nahi ditugu, eta horregatik borrokan jarraituko dugu planeta suntsitzen ari den sistema ekonomiko eta sozial kapitalista, neoliberal eta patriarkal honen aurka. Bide honetan batera ekiteko garaia dugu, bat eginik: langileak eta mugimendu sindikala, pentsiodunak, mugimendu feminista, gazteak, ikasleak, mugimendu ekologista, eskubide sozialen aldeko eragileak, arrazakeriaren aurkakoak, bestelako eredu bat eraikitzeko alternatibak garatzen ari garenak... denok batera antolatu gaituzten lantokietan eta eskualdez eskualde greba komiteetan, eta mobilizatu gaituzten urtarilaren 30eko Greba Orokorrean!



Aiurri eskuragarri:
Ebeez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urrietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutbuelo.
Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urdieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikiak:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Leges Gordinak: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ALJATUAK:**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA **Urdieta Udala**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Euzko Legebiltzaria **Gipuzkoako Foru Aldundia**

ZIURTAGIRIA: **BABESLEAK:**

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

EGUBERRIAK ANDOAINEN ETA URNIETAN



Baltasar erregeak herrikoen, gertukoen eta etxekoen babesa jaso zuen egun osoan zehar. AIURRI



Mari Domingi eta Olentzero, abenduaren 24ko gauan. AIURRI

Magiaz beteriko egunak, urte berriari ekiteko

lazkoarekin alderatuta, bake giroan amaitu dira Eguberrietako ospakizunak. Meltxor, Gaspar eta Baltasar errege magoek txalo zaparrada jaso zuten ibilbide osoan zehar. Olentzerok eta Mari Domingik ere jendetza izaten dute zain, abenduaren 24ko iluntzean



Errege Magoak Goikoplazara iritsi zirenean. AIURRI

Hitzordu ugari Eguberrietan



Anbrosia Olabiden lan eta lan aritu ziren. AIURRI

Santomasak Bertxin elkarteko zuzendaritzak bazkideei txistorra jatera gonbidatu zieten San Tomas egunarekin batera, urtero lege. Milatik gora bazkide ditu elkarteak, eta horietako asko hurbildu ziren Anbrosia Olabideko egoitzara



Antolatzaileak elkartearen kanpoaldean, Olagain auzoan. AIURRI

Santomasak Santa Krutz jubilatu eta pentsiodunen elkarteko kideek, txistorra eta ardoa eskaini zituzten. Olagain auzoko egoitzan giro polita sortu zen. Elkarteak otsailaren 1ean urteko batzarra ospatuko du, arratsaldeko 16:00etatik aurrera..



Emanaldiaren amaieran kantuan aritu ziren. AIURRI

Presoen alde Urteko azken egunean euskal presoen aldeko enkartelada egin zuten, "Etxean nahi ditugu!" lelopean. Goikoplazatik abiatuta, kale agerraldi isila egin zuten. Zumea plazan, Hertzainak taldearen "564" kantua abestu zuten.



Aitor Arnaiz, Mariñe Errazkin, David Gimenez, Saioa Telletxea eta Felix Tena helmugara iristen. AIURRI



Josune Etxeberria, Irene Jauregi eta Mari Jose Goikoetxeaundia. AIURRI



Sergio Perez eta Armando Fernandez, ohi bezala, alaba lagun duela. AIURRI




Patinatzaileek ere parte hartzeko ohitura dute. AIURRI



Javier Telletxea. AIURRI



Joxan Perez eta Jon Mikel Korta. AIURRI



Urko Arana. AIURRI



Ainara Gurrutxaga eta Sergio Roman izan dira aurtengo saridunak. AIURRI



Nagore Alkorta. AIURRI

Hitzordu ugari Eguberrietan



Umama emanaldi bereziko protagonistak. AIURRI

Eguberri Umama Andoaingo Udal Musika Eskolako hiru abesbatzek Gabon kantez eta doinu espiritualez osatutako kontzertua eskaini zuten Basteron, abenduaren 20an. Jazz laukote bikaina izan zuten bidelagun.



Easo abesbatzako hainbat kide, emanaldiaren amaieran. AIURRI

Easo abesbatza Kontzertu ederra eskaini zuen Easo emakumeen abesbatzak San Martin parrobian, abenduaren 23an. Abeslariak bakarka zein taldeka jardun zuten, Gorka Merino zuzendariaren agindutara eta Ana Belen Garcia organojoleak lagunduta.



Bertsolariak eta trikitilariak Irunberri tabernan. AIURRI


Bertso poteoa Tabernak eta kaleak girotu zituen urtarilaren 4ko bertso triki poteoak, Goikoplazatik abiatuta. Beloki, Mendizabal eta Ormaetxea bertsolariek saio politak eskaini zituzten. Maialen eta Iñaki Lopez de Munain anai-arrebak trikitixarekin aritu ziren.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Josune Etxezarreta. AIURRI

Hitzorduz beteriko Eguberriak Urnietan

Aisialdiari dagokionez, aspertzeko tarterik ez da izan Urnietan. Haur, gazte eta helduentzat abenduaren amaieran eta urtarrilaren hasieran hitzordu ugari antolatu dituzte. Udalak antolatutakoez gain, herri eragileen ekarpenak nabarmendu behar dira



Olentzero, Mari Domingi eta laguntzaileak abenduaren 23an. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Besteak beste, Zanpatuz mendi elkarteak antolatu zuen Adarramendira igoera edota Etxeberrietako auzo elkarteak kanpaikadak entseatzeko antolatu zuen festatxoa. Hitzordu horiekin batera, Eguberriei hasiera emateko argi piztuera ekitaldia antolatu zuten. Eta, aurtengoan, Magale ikastetxeok egindako

lana errespetatu dute. Ez da zorigaiztoko albisterik izan, beraz. Poxta Zahar gazte elkarteak ere parte hartze nabarmena izaten du Eguberrietan, euren eskutik antolatzen baita urte amaierako San Silbestre lasterketa. Herrikide askori, umore ona baliatuz, urtea sa-soiko amaitzeko aukera eskaintzen diete. Zeresana eman due-

na urtearen amaieran Besabi inguruetan hainbat ibilgailuei ezarritako isunak izan dira. Aztoramendua sortu zen herrian eta inguruetan, eta Udalak eta Ertzaintzak bide segurtasuna bermatzeko neurriekin jarraituko dutela iragarri zuten. Urtarrilaren 1ean, denon borondateari esker, trafikoak ez zuen eragozpenik sortu.



Hitzordu ugari Urnietan



Kantuan aritu ziren abenduaren 24an. AIURRI

Kantari Abenduaren 23an Urnietako kaleetan barrena ibili ziren Olentzero eta Mari Domingi. Eta abenduaren 24an gazteak eta helduak ohitura zaharra biziberritzen aritu ziren. Arratsaldean, esaterako, herrigunean kantu taldea kantari ibili zen.





Kanpaikadak entseatu zituzten Etxeberri plazan. AIURRI

Kanpaikadak Etxeberri plazako auzo elkarte auzoa eta herria dinamizatzeko lan eta lan ari da, azken urteotan. Abenduaren 27an urte zaharreko kanpaikadak entseatzeko saioa egin zuten. Ospakizun dibertigarria izan zen.




Errege Magoen kabalgata San Juan plazan. AIURRI

Kabalgata Eguberriei amaiera ematen dion ekitaldia izan ohi da, eta oso parte hartzailea. Urnietako familia asko kalera hurbildu zen, Errege magoei harrera egitera. San Juan plazan, adin txikiko haurrei opari bana eman zieten.



Irribarrea ahoan lasterka aritu ziren partaide guztiak, eta umore on hori ikusleengan txertatu zen. Kirol proba izateko, lehia bigarren maila batean geratzen da urteko azken eguneko lasterketan. AIURRI



Adin guztietako partaideak elkartzen badira ere, gazte jende ugari irten zen urteari amaiera emateko lasterketan. AIURRI

Antolatzaile taldea, San Juan plazan izena emateko ipini zuten mahaian. AIURRI



Abenduaren 31n festa nagusi bada ere, hauexek izan ziren lasterketako lehen hiru sailkatuak. Ezker-eskuin, argazkian, Ainhoa Jauregi (2), Igor Amantegi (2), Asier Martinez (1), Ane Otaegi (1), Jokin Lizeaga (3) eta Uxue Salaberria (3). AIURRI



Diego Carballedak jaso zuen mozzorro onenaren saria. AIURRI



Buruntzaldea IKT taldeko kideak Hernaniko kiroldegian. BURUNTZALDEAIKT

Neguko Ligari amaiera

IGERIKETA Marka onak ezarri zituzten Eguberrien atarian, Hernaniko igerilekuko proba ezberdinetan

Erredakzioa ANDOAIN

Eguberrien atarian, Buruntzaldea IKT taldeko infantil, junior eta senior mailako kideek Negurko Ligari amaiera eman zioten. Maila ona eskainiz, gainera. Hernaniko igerilekuan klubeko hoge igerilarik hartu zuten parte, eta horietatik batzuk marka berriak eskuratu zituzten. Marka hobekuntzei dagokionez, hainbat kide nabarmendu behar dira. Yaiza Martinezek 35:69 denborarekin 50 libreko marka hobetu zuen. Nerea Santosek 50 libreko 30:89 marka berria ezarri zuen, eta 36:03ko denbora 50

tximeletan. Izaro Audikanak, bere aldetik, 800 metro librean 11:01,16 marka ezarri zuen, eta 400 librean 5:28,70.

Gizonezkoetan, Julen Azpirozek 800 librean (11:11,16) eta 400 librean (5:36,52) bere markak hobetu zituen.

Eguberrietako nazioarteko XXXVII. saria

Mikel Esnal mutiletan eta Nerea Irazu nesketan izan ziren Buruntzaldea IKT taldeko ordezkariak. Irazuk deskalifikazioa pairatu zuen. Esnal, bere berragertopenean, gustura aritu zen.



GAZTELEKU

Gipuzkoako txapeldunak

PALA Ibon Altuna eta Aritz Rekalde andoaindarrek Gipuzkoako Pala Nagusiko finala irabazi zuten, larunbatean Andoain bertan jokatu zen finalean. Gazteleku pilota elkarteko pilotariek EPLE klubeko Yorel Martinez eta Ruben Pichel bikotea garaitu zuten partida estu batean, 45-39 irabazi eta gero. Finalistekin batera, argazkian Mateo Ponce ageri da.

Besabi inguruetan bidea ez oztopatzeko deialdia

MENDIZALETASUNA Ibilgailuentzat nahikoa tokirik ez badago ere, bide segurtasuna bermatzeko deialdi berezia egin du Udalak. Gutxieneko neurri hori betetzen ez bada, Ertzaintzak isunak jartzeko aukera baliatzen jarraituko du

Erredakzioa URNIETA

Abenduaren amaieran Besabi inguruetako bide bazterrean utzitako hainbat autoetan isunak agertu ziren, Ertzaintzak jarritakoak. Ez ohikoa izanagatik, gertaerak zeresana eman zuen Urnietan. Isuna jasotako hainbat eta hainbat urnietarrak baitziren. Salaketa bat tarteko izan zen, eta Ertzaintzak isunak ezartzeari ekin zion. Ezaguna da urtean zehar hainbatetan ibilgailuak bide bazterrean uzten direla, eta argi dago soluzioa aurkitu behar zaiola. Nola edo hala uztartu beharko dira mendizaleen asmoak, eta bide segurtasuna. Urtarrilaren 1aren bezperatan, Urnietako udalak urte osora zabaldu daitekeen ohartarazpena luzatu zuen: "Besabiraino kotxez igotzen direnei errepidearen albo batean soilik aparkatzea gomendatzen zaie, beste aldea erabat libre utziz. Izan



Bide segurtasuna bermatzea ezinbestekoa da, Besabi-Adarra inguruetan. AIURRI

ere, bi alboetan aparkatuz gero, eta larrialdiren bat gertatuko balitz, larrialdi zerbitzuak bertatik pasatzeko behar duten espaziorik gabe geratu litezke.

Aurrerantzean ere albo bat libre utzi beharko da". Seinalez-tapen hobea ezartzeko konpromisoa hartu du Urnietako Udalak, ezustekoak saiheste aldera.

Salda beroa eskaintzen darrai Euskalduna taldeak



Azpiegitura osoa igotzeko eta jaisteko auzolana ezinbestekoa da. Euskaldunaren ekarpena balio handikoa da. AIURRI

Euskaldunak urteroko ohiturari eusten dio, eta aurtengoan ere ehunka mendizaleei salda eskaini die. Adarra gainean lanak amaituta zirenean, Nerea Buenok balorazioa eskaini zion Aiurri astekariari: "Goizeko 07:30ak aldera hasi gara salda

banatzen, ordu horretan hurbildu baitira lehen mendizaleak. 800-9 00 lagunentzat banatu dugu salda, eta jende askok gainera etxetik ekarri du bere edalontzia. Guk eskaini ditugunak ere berrerabilgarriak ziren. Oso giro

polita sortu da goizetik, eta denek ere eskertu dute gure ahalegina. Pentsa, Euskaldunako lehen kideak goizeko 05:30erako hemen ziren". Eskertzekoa da, beraz, azpiegitura osoari eusten dioten mendizaleen lana.

Denboraldiari berrekiteko txapelketa baliagarria

ESKUBALOIA Denboraldiari berrekingo diote asteburu honetan, baina bitartean Leizaran taldeko neskak ez dira oporretan egon. Klubak antolatzen duen herriko txapelketan parte hartze bizia izan dute. Hiru mailatan, gainera, txapelketako irabazle izan dira

Erredakzioa ANDOAIN
Eguberrietako oporraldiarekin bat eginez, Leizaran eskubaloit taldeak tradizio handiko Errege txapelketa antolatu zuen. Urta-rrilaren 4an hainbat partida jokatu ziren Arraten eta Allurralden. Antolatzailak pozarren daude, “egun ederra igaro genuen, eta finalak ikusteko Allurralde bete egin zen”. Emaizta garrantzitsuena ez bada ere, aurtengoan bingo abesteko moduan egon daitezke. Izan ere, infantil, kadete eta jubenil mailako hiru taldeak nagusitu ziren.

Eskertza
Klubak eskertza adierazi nahi die hainbat lagun eta eragileei: “Epaileei egindako lan bikainagatik; Zumeatarra, Batzokia eta Peña Santa Kruz elkarteei antolatutako bazkari bikainagatik, txapelketa antolatzen lagundu ziguten babesle guztiei eta gurekin lanean aritu ziren hainbat pertsonari. Eta baita Andoaingo herriari eta partidak ikustera hurbildutako zaletuei. Eskerrik asko harmailetan erakutsitako jarrera bikainagatik”.



Leizaran Lanbroa taldea sari banaketa ekitaldian. JOXE MARI IGARATEGI (BIKOITZ)



Leizaran La Salle Berrozpe taldea. JOXE MARI IGARATEGI (BIKOITZ)



Infantil mailako Leizaran urdina taldea. JOXE MARI IGARATEGI (BIKOITZ)

Sailkapenak

Infantil maila:

- 1. Leizaran Urdina.
- 2. Urdaibai A.
- 3. Urdaibai B.
- 4. Eharialde.

Kadete maila:

- 1. Leizaran Urdina.
- 2. Eharialde.
- 3. Urdaibai.
- 4. Leizaran Horia.

Jubenil maila:

- 1. Leizaran.
- 2. Urdaibai.
- 3. Eharialde.



Odei Jimenez, senior mailako jokalaria erasoan. UKE

Desafioa bigarren itzulian

ESKUBALOIA Urnietako lehen taldeak jaitsierako postuak saihesten ahalegindu behar du, bigarren itzulian

Erredakzioa ANDOAIN

Lehen itzulia ez zuten nahi bezain ondo amaitu, Urnietako senior mailako eskubaloit taldeek. Gizonezkoen mailan, Euskadiko Liga zailean, Urnietako Artola Harategiak etxeko azken partidak galdu zuen Escolapios taldearen aurka (28-29). Jaitsiera postuetan amaitu dute lehen itzulia. Urnietarrak ondo hasi ziren; defentsa sendoa erakutsiz eta erasoan asmatuz. Baina aurkariak kontraeraso bikainak eta azkarrak egiten hasi ziren, bertakoen deserosotasuna areagotuz. Partida guztia oso parekatuta

egon zen, edonork irabaz zezakeen, eta azkenean tanto bakar batengatik Escolapios taldea gailendu zen.

Lehen porrota neskentzat

Emakumezkoen senior taldeak denboraldiko lehen porrota jasan zuen Egiaren aurka. Lehen postua jokoan zegoen, berdinduta baitziren. Esan beharra dago, Urnietako Quel Abogados taldeak partida ona egin zuela, nahiz eta ez zuen markagailuari buelta ematea lortu. Defentsa ona eta sendoa erakutsi zuten urnietarrek.



Eskubaloit eskolako kideak, Eguberrietako txapelketan. UKE

Eguberrietako txapelketa

Giro bikaina sortu zen abenduaren 28an, UKEk antolatu zuen Gabonetako Torneoaren XII. edizioan. 300 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte txapelketan. Emaizte dagokionez, maila guztietan partidak borrokatuak izan ziren. Horrez gain, txikienek ere jokatzeko aukera eduki zuten; Urnietako eskubaloit eskolakoak Zumarragako Urola eskolakoekin aritu ziren.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Euskalduna-Añorga **0-0**

SAILKAPENA

1 Eibar Urko **38 puntu**

18 Euskalduna **14 puntu**

NESKAK, OHOREZKOA

Hernani-Urnieta **3-0**

SAILKAPENA

1 Arizmendi **40 puntu**

11 Urnieta **11 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Urnieta- Arizmendi / Lar, 11

ERREGIONAL PREFERENTE

Urnieta-Sanpredotarra **0-4**

SAILKAPENA

1 Vasconia **33 puntu**

15 Urnieta **8 puntu**

ERREGIONAL LEHEN MAILA

Euskalduna-Axular **3-0**

SAILKAPENA

1 Segura Goierri **25 puntu**

6 Euskalduna **20 puntu**

PREFERENTE NESKAK

Orioko-Euskalduna **1-0**

SAILKAPENA

1 Añorga **28 puntu**

2 Euskalduna **25 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

16:30 Euskalduna- Añorga / Lar, 11

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

Euskalduna-Ekintza **2-1**

SAILKAPENA

1 Euskalduna **36 puntu**

2 Touring **30 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

18:30 Euskalduna- Pasaia / Lar, 11

JUBENIL MAILA, KOPA

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Urnieta- Amara Berri / Ig, 11

JUBENILEN LEHEN MAILA

Euskalduna-Segura Goierri **1-1**

Danena-Urnieta **3-1**

SAILKAPENA

3 Urnieta **24 puntu**

6 Euskalduna **16 puntu**

KADETEAK, IGOERA FASEA

Euskalduna-Santo Tomas **2-0**

SAILKAPENA

1 Trintxerpe **3 puntu**

3 Euskalduna **3 puntu**

KADETE, KOPA

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Urnieta-Astigarraga / Lar, 11

11:00 Euskalduna-Usurbil / Lar, 11

KADETE NESKAK

Euskalduna-Astigarraga **0-5**

Tolosa-Urnieta **5-0**

SAILKAPENA

1 Astigarraga **30 puntu**

6 Euskalduna **11 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

11:30 Urnieta- Intxaurdi / Ig, 12

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK

Urnieta-Escolapios **28-29**

ASTEBURUKO PARTIDA

--:-- Urnieta- Urdaneta

GIPUZKOA, SENIOR EMAKUMEAK

Egia-Urnieta **29-21**

SAILKAPENA

1 Egia **18 puntu**

2 Urnieta **16 puntu**

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK

Leizaran-Egia **41-26**

SAILKAPENA

1 Saieko **18 puntu**

5 Leizaran **12 puntu**

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK

Ordizia-Urnieta **17-32**

Hondarribia-Leizaran **19-32**

SAILKAPENA

1 Leizaran **8 puntu**

5 Urnieta **2 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Urnieta- Egia / Ig, 12

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK

Leizaran-Pulpo **26-22**

Eibar-Urnieta **22-25**

SAILKAPENA

1 Leizaran **4 puntu**

4 Urnieta **2 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

11:15 Leizaran- Eibar / Ig, 12

17:15 Urnieta- Usurbil / Lar, 11

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK

Leizaran-Egia **29-31**

Pulpo-Urnieta **27-24**

Ereintza-Urnieta **21-27**

ASTEBURUKO PARTIDA

10:15 Leizaran-Ereintza / Lar, 11

GIPUZKOA, KADETE NESKAK

Sagarmíña-Leizaran **21-29**

Aiala-Urnieta **23-27**

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Leizaran- Elgoibar / Lar, 11

15:45 Urnieta- Ereintza / Lar, 11

SASKIBALOIA

SENIOR GIZONEZKOAK 3. MAILA

Irun-Zurrut **67-52**

SAILKAPENA

1 Astigarraga **11 puntu**

7 Zurrut S.K. **8 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

19:30 Zurrut- Take Coach / Lar, 11



Argazki ikusgarriak zabaldu ditu Zanpatuz taldeko Alain Paulis kideak. ALAINPAULIS

Adarrara gauez

MENDIZALETASUNA Abenduaren 27an urteko azken ekitaldia antolatu zuen Zanpatuz mendi elkarteak, Adarramendira gaueko irteera antolatuz. Laurogeitamar lagunek bat egin zuten deialdiarekin

Andoni Urbistondo URNIETA
Zanpatuz mendi taldeak bukaera berezia eman nahi izan zion 2019 urteari, eta azken urteetan egin bezala, Adarramendira gauez igotzeko irteera antolatu zuen. Urnietarren artean estimu handia duen irteera da, etxeko txikienekin Muliskon, otsailean eskiatzera eta udan Pirinioetara egiten denarekin batera. 90 lagun batu ziren antolatzaileen deira, eta zazpiak pasata goranzko bideari ekin. Eguraldi argia lagun izan zuten mendizaleek, lainorik batere ez zeruan, baina ilargiaren argi txikiarekin, %15eko argiarekin, soilik. Ez zen ezusteko arazorik sortu igorran, eta 90 lagunek txandaka zanpatu zuten Urnietako altxor preziatuena: Adarramendi.

Federatu txartela

Elkarteak 2020an dauka dagoneko burua. Laster jakinaraziko ditu irteera proposamenak eta datak, eta urteko irteera politenetakoa Belagua inguruetan egingo dena izango da, ziur aski. Izabako aterpea irailean irekiko da, eta Zanpatuz mendi

taldea bertan asteburu bat pasatzeko irteera antolatzeko aukera aztertzen ari da, udazkenean. Xehetasun gehiago jaso bitartean, mendi taldeko kideek federatu txartela egiteko aholkua luzatu nahi die, mendian lasaitasunez ibiltzeko. Bazkideei tarifen zerrenda igorri zaie, dagoeneko, eta zalantzaren bat daukanak info@zanpatuz.eus postara idatz dezake. Txartelak jasotzen hasia da mendi elkartean eta jasotzen diren heinean horien banaketa egingen du bazkideen artean.

Bertsoa

*Besabitikan abitu giñan,
Adarra mendi gendun zai.
Illargi ama, testigu zala
Pausoz pauso, oso alai,
Izarrak ñir-ñir arnas estuka
Gallurra zanpatzeko gai.
Egunez oso polita zera
Eta gauean ere bai.
Gau magikoa-bizi deguna
Beraz zorionak denai.*

Joxe Fermin Argiñarena



Urnietako
udala

ZORION AGURRAK




ANDOAIN
Amaia Errazkin Ezeiza
Urtarrilaren 27an urteak beteko dituzu. Mila muxu aitona Esteban eta amona Mirenen partetik.



ANDOAIN
Maialen Diez Rezola
Urtarrilaren 4an Maialenek 25 urte beteko ditu. 2020an jarraitu zure ametsak betetzen. Etxekoak.



ANDOAIN
Oier Ichaso Ventanas
Iada 12 urte! Ondo-ondo ospatu. Muxu asko Enara, amatxo, aitatxo eta familiakoen partetik!



ANDOAIN
Julen Rodriguez Zorionak
Espero dugu oso ondo pasatzea zure urtebetetze egunean. Asko maite zaitugu. Jarraitu horrela.



ANDOAIN
Algodonera 8ko bizilagunak
Urte Berri On opa dizuegu andoaindar guztiel, besarkada bat Algodonera 8ko bizilagunen partez!

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 11 eta igandea 12
MONFORT: Aita Larramendi, 26. 943 300 913 Andoain.
URNIETA
Larunbata 11 eta igandea 12
TENA: Kale Nagusia, 16. 943 543 718 Astigarraga.
GAUEZ
ALDABE: Perkaiztegi, 8. Antziola. 943 336 022 Hernani.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 10

ANDOAIN Zirkoa
"Los titiriteros".
18:00, *Belabi*.

ANDOAIN Antzerkia
"Ene! ba", Txalo konpainiaren eskutik.
20:30, *Bastero*. 12 euro.

LARUNBATA 11

ESKUALDEA Manifestazioa
"Orain presoak" lelopean, bat egiteko deia luzatu du Sare ekimenak.
15:00, *Baiona*. 17:00, *Bilbo*.

ANDOAIN Zirkoa
"Los titiriteros".
18:00, *Belabi*.

IGANDEA 12

ANDOAIN Zirkoa
"Los titiriteros".
12:00-17:00, *Belabi*.

ASTEARTEA 14

ANDOAIN Dokumentala
"Asier eta biok".
18:30, *Bastero*.

OSTIRALA 17

ANDOAIN Kontzertua
Lorelei musika taldearen kontzertua.
21:30, *Bastero*. 12 euro.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Yogurina Borovarekin batera. AIURRI

ANDOAIN "Bizi dantza" ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizun berriena ikusteko aukera izango da Andoainen. Sarrerak dagoeneko salgai daude Basteroko leihatilan, eta baita Kutxabank gunean ere..
Urtarrilak 25, larunbata. 16:00 eta 18:30, Bastero Kulturgunean.

OSTIRALA 24

ANDOAIN Erakusketa
Aitor Arruti eta Mak Jürgen gazteen erakusketa ikusteko azken eguna. Argazkigintza eta bertsolaritza, uzartuta.
Bastero, erakusketa gela.

LARUNBATA 25

ANDOAIN Pailazoak
"Bizi dantza" Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Sarrerak salgai leihatilan eta Kutxabank gunean.
16:00, 18:30, Bastero.

ANDOAIN Ospakizuna
"Larramendi eguna", euskararen aldeko ospakizuna. Arratsalde partean "Ezina egina" leloaren giza irudi erraldoia osatuko dute. Eta horretarako 300 boluntarioen beharra izango dute.
Goikoplaza.

IGANDEA 26

URNIETA Haur antzerkia
"Izeba tekla" ikuskizuna, Xabier Lizasoren eskutik. Musika, jolasa eta pianoa.
18:00, Sarobe.

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Dios mío
Larunbata, 11. 19:30, 22:00.
Ig, 12. 19:30.
Asti, 13. 19:30, 22:00.

Maleficent
Lar, 11. 17:00.
Ig, 12. 17:00.



URNIETA
Mia y el leon blanco.
Ig, 12. 17:00.

SINOPSISIA



Mia y el leon blanco
Zuzendaria: Gilles de Maistre. **Gidoia:** Prune de Maistre, William Davies. **Aktoreak:** Daniah De Villiers, Melanie Laurent, Langley Kirkwood, Ryan Mac Lennan, Lionel Newton... **Herrialdea:** Frantzia (2019). **Generoa:** Animaliak. **Iraupena:** 98 min.

"Orain presoak" manifestazioa

Komunitatea
SARE / ANDOAIN, URNIETA
2020ko urtarrilaren 11n "Orain Presoak" lelopean euskal presoan alde Bilbon eta Baionan manifestazio bana egingo da. Hara joateko autobusak antolatu dituzte Urnietako eta Andoango Sarek. Bilboko manifestazioa arratsaldeko 17:00etan abiatuko da La Casillatik, eta, Baionakoa, arratsaldeko 15:00etan Laugatik. Bertaratu nahi dutenek aurrez izena eman behar dute ondorengo lekuetan:
– Andoango Irunberri elkartean.
– Urnietako Bikain okindegian.
Autobusen irteera ordua ondorengoia izanen da:
– Baionarako autobusa 14:00etan.
– Bilborako autobusa 14:30etan.



Kale Nagusiko merkatalgunea. AIURRI

Loteriaren bigarren sariaren zati bat, Andoainen

Urtarrilaren 5eko El Niño loteriari zegokion 21.816 bigarren sariaren zati bat Andoainen saldu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Dezimo bakoitzeko 75.000 euroko saria gordetzen zuen 21.816 zenbakiak. Aurtengo El Niño loteriaren bigarren sari nagusia izan da, eta Andoainen bat baino gehiago zorteduna izan da. Albistea berehala zabaldu zen andoaindarren artean, eta urtarriaren 6an eta 7an ikusmin handia piztu zen. Andoaindar asko hurbildu zen Kale Nagusiko merkatalgunera, sari hori eta txikiagoak diren beste sari batzuk jasotzera. Gehiengoak jokatzeko jarraitu beharko duen bitartean, oraingoan zorteak bat egin du jokalariei gutxi batzuekin. Sari polita jaso dute.

Merkatariei zuzendutako bilera deitu du EHBilduk

Erredakzioa URNIETA

Urnietako EH Bildu Udal taldeak proposamen bat helarazi nahi die herriko merkatariei, eta bilera batera deitu ditu. Urtarrilaren 13an izango da, iluntzeko 20:00tan Lekaion hasiko dena.

Migel Arrieta Urnietako bertsolaria zendu da

Iraganean bertsolari eta korrikalari gisa nabarmendu zen Migel Arrieta Bideburu joan zen urtarriean 4an hil zen, 88 urte zituela. Astearte arratsaldean azken agurra eskaini zioten Andoaingo San Martin parrokiari. Urnietarra bazen ere, Andoainen bizi zen

Xabier Lasa ANDOAIN

Maria Etxeberria zen bere emaztea, eta Pedro eta Rikardo bere bi semeak. Gaixotasun larri batek jota bizi zen azken aldian, eta ospitalean hil zen. Bertsotarako sena ez zuen azken unera arte galdu, bere senitartekoei gogoratu duten bezala. Izan ere, ospitalean zeladore aritzen den Jon Otaegi *Gibitegi* harri jasotzaile ohiarekin bertsotan jarduna zen orain aurretik.

Ezaugarri bereziko belaunaldi baten azken ordezkarietako bat joan dela esan daiteke: gaztelaniak kutsatu gabeko hiztuna, kontalari aparta, bertso saioa entzun ondoren bertso ugari gogoan hartu eta kantatzeko gaitasuna zuena...

Legarralde baserriko semea

Migel Arrieta Bideburu Urnietan 1931n jaio zen, Onddi mendiaren hegalean dagoen Legarralde baserrian hain zuzen. Zortzi senideetatik gazteena zen. Urnietako eta Hernaniko herri kasakoetatik ezin urrunago dagoen Legarralde baserriko ateak beti zeuden irekita edonorentzat, eta bere ama, Agapita Bideburu, emagin aritu zen bi herrietako baserri giroetan.

Migelek etxean jaso zuen bertso egarria, bertako sukaldian



Migel Arrieta, familiako kide guztiak biltzen dituen kuadroarekin. AIURRI

kasik hizketan bezala aritzen baitziren guztiak ere. *"Joxinixio. Pizkunde zapuztua"* liburuan adierazi zuen hori: "Aitak, Juan Jose anaiak eta hirurak geneukan joera bat-batean aritzeko bertsotan, batez ere. Beste gainerakoek bertso zaharrak zekizkiten buruz, kantatzeko moduan. Aitarengandik jasoko genuen

guztiok. Artzaina zen eta eskribitzen ez zekien, baina hark zeukan memoria ikaragarria entzundakoa buruz memorizatzen! Hernanira meza nagusia entzuterako joateko ohitura zuen; gero handik Portu edo beste edozein festetara joan, eta beti bertsoak ikasita itzultzen zen etxera". Aitak erakutsitako bide

berberetik ekin zion Migelek ere, bertsolaritzaren unibertsoan sozializatzen.

1947ko hondarrean, Urnietan Luistarren elkartearen gerizpean antolatu zen bertsolari gazteen txapelketan parte hartu zuen. Juan Batista Urretabizkaia, Praxku Urruzola "Elutxeta" eta Legarralde baserriko bi anaiek -Juan Joxe anaia eta Migel- kantatu zuten. Anaia irten zen garaile orduan, makina bat urnietarren jakin mina piztu zuen jaialdi hartan. Gipuzkoan 1949an antolatu zen bigarren mailako bertsolariei begirako txapelketan ere hartu zuen parte Migelek.

Xoxokan jai-eragile

40 eta 50eko hamarkadetan, herri herri ibiltzen ziren bertsolari bakanekin (Uztapide, Mitxelena, Basarri, Lasarte, Hernani txiki...) kantatu izan zuen, tarteka. Inon baino gehiago, Xoxokako plazan, bertako jailetan. Gaztetan, auzo horretako ekimenetan ekintzailea izan zen Migel, eta esate batera, jaien antolakuntzan ibili zen urte frankotan. 1936ko gerra osteko urte triste eta txiroetan irudimena eta borondatea nahikoak izan ziren "debaldeko festa" ikusgarriak antolatzeko, eta zeregin horretan trebe jokatu zuen, festa antolatzaile ez ezik ekintzaile ere bai, bertsolari eta korrikalari gisa. Gogoangarriak dira lehen aipatutako bertsolarien batera osatu zituen bertso saioak, edo eta, Patxi Irizar Garro, Manuel Otxotorena eta hiruek egin zituzten korrika apustuak. Urnietan bizi diren zaharrenek ere gogoan edukiko dute Antonio Agirre eta biek Idiazabal kalean burutu zuten apustua -dirua tarteko-, herrian hainbesteko ikusmina eragin zuena.

Arregui eta Odriozola, urtez urte Euskadiko ziklo krosaren elitean

Bizikleta.com taldekoek emaitza onak lortu zituzten abenduan ospatu zen Euskadiko ziklo-kros txapelketan

Erredakzioa URNIETA

Negu garaia iristearrekin batera, ziklo kros denboraldia indarrean izaten da. Elite mailan Asier Arregui andoaindarra eta Olatz Odriozola urnietarra maila bikaina ematen ari dira, beste

urte batez. Abenduan Lezaman jokatu zen Euskadi mailako txapelketan, Odriozola txapeldun-orde izan zen. Eta Arregui, aldiz, bosgarrena. Erabat ondo ez daudenetan ere, lehiakorrak direla erakusten ari dira.



Olatz Odriozola Euskadiko txapeldun-orde da. AIURRI